



juneren hegoak

GAIXOTASUNA DUTEN NESKA-MUTILEI ETA HAIEN
FAMILIEI LAGUNTZEKO ELKARTEA

www.junerenhegoak.org
www.lasalasdejune.org

MEMORIA 2024

FAMILIEI EKINTZA TXIKI GUZTIETAN LAGUNTZEA

Euskal Herriko Elkarten Erregistro
Orokorrean inskribatuta
AS/G/17785/2013

Eusko Jaurlaritzak 2020ko
martxoaren 10ean Onura Publiko
izendatu zuen GKEak

Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Foru
Erregistroan inskribatuta

G75091728 CIF



junerenhegoak.org lasalasdejune.org



info@junerenhegoak.org
bulegoa@junerenhegoak.org



688 962 111



Martin Etxeberria 15-bajo, 20100
Errenteria, Gipuzkoa



SARRERA

EREMUAK

FAMILIAK

EKITALDIAK

KOMUNIKAZIOA

ELKARREKIN

BOLUNTARIOTASUNA

ADMINISTRAZIOA

PLAGINTZA ETA ANTOLAKETA

ESKERRIK ASKO

5

9

15

17

21

23

25

27

+

guri buruzko informazio

gehiago: Gure misioa,

helburuak, egitura, arloak,...

Memorian aurkeztutako datuak 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartekoak dira, hau da, gure kontu-ekitaldiari dagozkionak. Laguntzen diguten pertsonen eskuzabaltasunari esker lortutako lorpenak nabarmendu nahi ditugu.

+

informazio zehatza nahi

baduzu, kontsultatu gure

GARDENTASUNA atala

gure webgunean:

www.junerenhegoak.org.

11 URTE FAMILIAK LAGUNTZEN

Imajinatu muturreko ahultasun-egoeran zaudela: dirua lortzeko borrokan ari zara, hizkuntza-oztopoak jasaten dituzu, lan ziurgabetasuna eta bakardadeak bidelagun dituzu, eta inguruan seniderik gabe laguntzeko. Gainera, zure seme edo alabetako batek zer den ez dakizun gaixotasun bati aurre egiten dio, edo aniztasun funtzionala duena, zure arreta eta denbora guztia eskatzen duena. Edo are okerrago, zure semea edo alaba hil dela eta ekaitz batean murgilduta zaudela.

Zailtasun eta min une hauen erdian, Juneren Hegoak itxaropen eta elkartasun-itsasargi bihurtzen da, bere hegoak zabalduz une gogor hauetan familiei laguntza eta babesa eskaintzeko.

Memoria honetan 2024an bizitakoa partekatzen dugu: esperientziak, lorpenak eta erronkak, gure lanaren benetako eragina familien bizitzetan islatzen dutenak.

Hemen uzten dizuegu urtean zehar egindako guztia, baina batez ere, gure bihotzak pozik daude, beste urte batez gure familiak lagundu ahal izan ditugulako eta gure haurren irribarreen lekuko izan garelako.

Carlos Sanchez
Juneren Hegoak elkarteko lehendakaria

2024an

26 FAMILIA ARTATU DIRA

22 ZAHAR
4 BERRI


FAMILIA ZAHARREN LAGUNTZA

8 EKONOMIKOA
14 BESTELAKO LAGUNTZAK

FAMILIA BERRIEN LAGUNTZA

1 EKONOMIKOA
3 BESTELAKO LAGUNTZAK

28 ONURADUN



FAMILIAK



**11 URTE
HAUETAN
(2013-2024)
GUZTIRA
LAGUNDU
DITUGU:**



**71
FAMILIA**



**75
ADINGABE**



**128
ONURADUN**

JUNEREN HEGOAKI ZENTZUA EMATEN DION ARLOA

Aurten 26 familia lagundu ditugu, laguntza ekonomikoa, ospitaleko laguntza eta administrazio-lanetan laguntza konbinatuz, beti etxeko beharretara egokituz.

Famili guztien artean, 4 familia berriak izan dira. Guztira 28 pertsona izan dira onuradun, horietatik 26 adingabe eta 2 guraso.

4 familia berrietatik, batek laguntza ekonomikoa jaso zuen, eta beste hiruk ospitaleko laguntza izan zuten.

Famili horien jatorria anitza da: Euskadi, Errumania, Senegal, Kolonia, Sahara, Maroko, Nepal, Nikaragua, Peru, Nigeria, Honduras, Palestina, Bangladesh. Ikusten denez, hainbat herrialdeko familia ditugu, eta horrek gure elkartearentzat ingurune kultural anitz eta aberasgarria sortzen du. Gainera, familia hauek Gipuzkoako herri desberdinetan bizi dira, hala nola: Beasain, Andoain, Azkoitia, Lezo, Ibarra, Tolosa, Erretera, Hernani, Lasarte, Oiartzun, Urnieta, Donostia eta Irun.

2024an, jaioberrietatik hasi eta 16 urtera bitarteko adingabeei lagundu diegu, eta guztiek arreta berezia behar duten osasun-egoera edo dibertsitate funtzional desberdinak dituzte.

Familia batzuei laguntza eman zaie ospitaleko egonaldietan, une zail horietan lagunduz eta egoten; beste batzuk urtean zehar izan zituzten kontsulta medikoetan lagunduta izan dira..

Famili batzuei administrazio-lanetan aholkuak eman zaizkie edo laguntza eskaini zaie.

Bestalde, familiek jasotako laguntza ekonomikoa honetarako erabili da:

- UNEA Diziplinarteko Zentroan saioak.
- Mindara saioak (musikoterapia eta kirol egokitua).
- Madrilgo La Paz Ospitalera bidaiak.
- Medikazio eta pixoihalen ordainketak.


2024. urtean, familiei dagokien arloan, Juneren Hegoak ekitaldi desberdinetan parte hartu ahal izan dugu. Bizitu saio bat gozatu genuen, Zapotxin pailazoarekin. Gabonetan, berriro ere, 10 urte arteko haurrei oparien banaketa egin genien, Capgemini enpresaren eskutik, Errege Magoen opariak banatuz. Gainera, 2024an, "Zorionak Zuri" proiektuarekin jarraitu dugu, gure haur eta neska-mutilen urtebetetzeetan poza partekatuz. Eta ez dugu ahaztu behar Juneren Hegoak Eguna, ekitaldi handia, non protagonistak familiek diren, eta hainbat jarduera eta jolas gozatu ahal izan diren.

**INFORMAZIO
GEHIAGO**
ESTATISTIKA



71
FAMILIA

2024RA ARTE LAGUNTZA JASO DUTEN
FAMILIEN BANAKETA GEOGRAFIKOA,
UDALERRIEN ARABERA



INFORMAZIO
GEHIAGO

GURE FAMILIEI BURUZKO ESTATISTIKAK



EKITALDIAK

JUNEREN
HEGOAK
ERRONKA EGUNA



JUNEREN HEGOAK EGUNA

Nabarmendu beharreko puntuak...



**BERTARATZE
JENDETSUA**



HERRIKO ERAGILEEN LANKIDETZARAKO JARRERA BIKAINA



GERTATUTAKO GUZTIAREN SARE SOZIALETA ERRETRANSMISIOA

HEDABIDEETAN AGERPENAK



EKITALDIKO ARGAZKIAK



Jardueraren aipatzekoak:

- **Kirol erronkak** berrikuntza bat ekarri dio programari eta jendearen aldetik oso harrera ona izan du.
- **Paella solidarioa** oso egokia izan zen; Xabirekin egoteaz gain, une gozoak elkartu zituen bertaratutakoak, esperientziak partekatzeko aukera eskainiz.
- **Disko-festak** giro ederra sortu zuen eta, berriro ere, jende asko bildu zen.

Lankidetza eta partaidetza:

- Herriko eragileen aldetik prestutasun bikaina izan genuen ekitaldian laguntzeko, eta horrek antolaketa erraztu zuen.
- Boluntarioen partaidetza aktiboa funtsezkoa izan zen, eta bereziki azpimarratzekoa da gazte boluntarioen inplikazioa.

[illegible]

EKITALDIAK

15 URTE
AMETSEN



Nabarmendu beharreko puntuak...



Kalu-k egin zuen erronkak jarraipen handia izan zuen, hainbat urtetan ez baitzen halakorik egin.



Bildutako dirua 6.000 € baino gehiago izan zen, horietatik 3.000 € Juneren Hegoak-ek jaso zituen, eta gainerakoa Markelen Irria eta behar bereziak dituen Lezoko adingabe baten artean banatu zen.



Lezo bezalako herri txiki batean izanik, herritarren aldetik jarraipen handia egoten da.



Egun osoan zehar egin ziren lanetarako jende askok boluntario moduan parte hartu zuen.



60 sari baino gehiagoko zozketa lortu zen.



Boluntarioek egindako paella-jana.

+
HEDABIDEETAN
AGERPENAK



+
AURKEZPENAREN
ARGAZKIAK



15 URTE AMETSEN

2024ko ekainaren 21 eta 22, Lezon

Markel Merinoren 15. urtebetetzea ospatzeko, Kaluk Oarsoaldeko eskualdean 15 ordu korrika egitea proposatu du. Horregatik erronkaren izenburua "15 urte ameten" da.

Ekainaren 21ean hasi zen Lezon, 20:00etan pintxo-pote solidarioarekin, eta 22:00etan eman zitzaion hasiera erronkari, Lezoko Gurutzen Santuaren plazatik. Kalu gau guztian zehar lagunduta egon zen.

Hurrengo egunean, jarduerak Lezoko Saldise plazara aldatu ziren.

15 Urte Amesten
EKAINAK 21-22

Ekainak 21 Lezoko Santuaren Plazan
20:00 Pintxo-Pote
22:00 Erronka Hasiera

Ekainak 22 Saldise Plazan
10:30 Irteerak
11:30 Jai Hasiera
13:00 Erronka Bukeera
14:00 Paella Solidarioa
15:00 Jai Bukeera

Erronka Solidarioa
ANTOLATZAILEAK
LAGUNTZAILEAK

Ekainak 21
20:00 Pintxo-Pote
22:00 Erronka Hasiera

Ekainak 22
10:30 Irteerak
11:30 Jai Hasiera
13:00 Erronka Bukeera
14:00 Paella Solidarioa
15:00 Jai Bukeera



BESTE URTE BATEZ, "CLUB
ATLETICO RENTERIA"REN
LAGUNTZA IZAN DUGU



1.145 € BILDU DIRA, ORAIN
ARTEKO KOPURU HANDIENA



JUNEREN HEGOAK
ELKARTEKO BOLUNTARIOEN
TALDETXXO BATEK
LASTERKETAN PARTE
HARTU ZUEN , TXIKIENEI
GOXOKIAK BOTATZEN



EKITALDIKO
ARGAZKIAK



KOMUNIKAZIOA

2024ko aipagarrienak...



**XABIER SALILLASEN KIROL
ERRONKAREN JARRAIPEN
INFORMATIBOA – 24 ORDUKO
TRIATLOIA**



**DONOSTIA TURISMOAREKIN
LANKIDETZA-HITZARMENA
GAUZATZEA**

**Donostia
Turismoko %2ari
buruzko
informazio
gehiago**



Gainera...



27.000 bisita gure WEBGUNERA



7.286 jarraitzaile FACEBOOK-en



1.244 jarraitzaile INSTAGRAMen



615 jarraitzaile X-en (Twitter)



Juneren Hegoak erakundearen jarduera gizartearekin partekatutako behar dela jakitun, arlo honek **estrategia planifikatu eta garatzen** du elkartearen jarduera ezagutzera emateko. Bere **helburu nagusia da gizartea sentsibilizatzea haur gaixoak dituzten familien** egunerokoari buruz, eta **baita erakundeak** eta haren boluntarioek egiten duten lan desinteresatuaren ekintza positiboa komunikatzea ere.

Juneren Hegoak-ek **barne-komunikazioan** ere jartzen du arreta, **boluntariotzari** eta elkarrekin ekimenak partekatzen dituzten beste erakundeei informazioa eskainiz: ekimenak, lankidetzak, familien kasuak... eta **elkartearen beste** dinamika batzuk. Zentzu honetan, nabarmendu nahi dugu Donostia Turismoarekin lortutako akordioa, zeinaren bidez gure proiektua Turismo Bulegoan eta hiriko beste puntu batzuetan zabaltzen den.

Juneren Hegoak-en jarduera sozializatzeko ahaleginean, garrantzitsuak dira sare sozialak, baina bereziki eskertu nahi dugu komunikabideek emandako babesa; izan ere, gure hitzetan, haiek dira gure proiektuen bozgorailuak, eta laguntzen dute jendarte zabalago batera iristen eta gure erakundearen inpaktua komunitatera hurbiltzen.

Komunikazio-arlo honek, zabalkundelanez gain, ibilbide luzea duten bi ekintza kudeatzen ditu elkartean: **egutegi solidarioa** (2025ean berriz ere munduan barrena bidaiatu dugu #TximeletakMundutik bidez), eta **June Sánchez Tolarechipi V. Beka**, haur minbiziarekin lotutako ikerketak laguntzeko.

40

**HEDABIDEETAN
AGERPENAK**



GURE LANA EZAGUTZEKO GILTZA

2024KO JARDUERA-TXOSTENA | 15

ELKARREKIN SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTAKTUAK



2024ko aipagarrienak...

- ✓ BIZITU PROGRAMA
- ✓ BIZIPOZA ESKOLAREN AURKEZPENA
- ✓ SENTSIBILIZAZIOA ETA IKERKETA PROIEKTUETAN PARTE HARTZEA
- ✓ IKASTETXEETAKO IKASLEEKIN EGINDAKO TOPAKETAK

7 ENTITATEEKIN LANKIDETZA

4 EKINTZA

Gainera...

- ⊕ "Jolasean" mahai-ingurua, Kroma eta beste elkarte batzuekin batera
- ⊕ Topaketa Mindara eta beste elkarte batzuekin, aniztasun funtzionala duten pertsonen ibilbide akademikoari buruzko gida aurkezteko.
- ⊕ Beste entitate batzuekin bilerak
- ⊕ Biba Zuek telebista-saioan parte-hartzea
- ⊕ Hezkuntzari buruzko proposamenak aurkeztu dituzten beste erakunde batzuen aurkezpenean parte-hartzea
- ⊕ Gipuzkoa Basket S.A.Drekin indarrean dagoen hitzarmena 22/23 denboralditik aurrera

BIZIPOZATIK ARRAZAKERIA DESERAIKITZEN

Zer lortzen dugu arrazakeriaz? Elkarteen laguntza "Euskararen kulturaren erakundeak" erakundeekin batera.

Eman izena! **Azaroak 16**

[Jardunaldi zientifiko - Jornada científica]

GIZARTE-HEZKUNTZA ETA OSASUN SAREA:

GAIXOTASUN ARRAZAKOAK DUTZEN UME ETA GUREN FAMILIARI BRANTZUTEN.

LA RED SOCIO-SANITARIA EDUCATIVA:

RESPONDIENDO A NIÑOS Y NIÑAS CON ENFERMEDAD RARA Y A SUS FAMILIAS.

Abenduak 2 diciembre
Bizkaia Aretoa
(EHUko Paraninfoa)
Ordutia/Hora:16:30-20:00

www.euska.eus

inKlusi

oseber

2024KO JARDUERA-TXOSTENA | 17



BIZIPOZATIK ARRAZAKERIA DESERAIKITZEN' AURKEZPENA

Bizipoza Elkartearen VIII. Jardunaldietan parte hartzea, non espazio bat eskaini zen jarrera arrazistak hausnartu ahal izateko, arloan adituak diren pertsonen estrategia eta jarduera desberdinak balioan jarrita, baita jokabide eta pentsamolde arrazistak deseraikitzen laguntzen duten bizipenak ere.

SENTSIBILIZAZIO ETA IKERKETA PROIEKTUAK

Iaz gertatu zen bezala, 2024an Juneren Hegoaren parte-hartzea unibertsitate hezkuntzarekin eta horren baitako ikerketarekin lotutako proiektuetan zentratu da:

Deustuko Unibertsitatea: Martxoan, Ikasle talde batek film labur bat aurkeztu zuen dolaari buruz eta horrek eskolako errealitatean duen eraginari buruz.

INKLUNI (UPV/EHU): Amaiera eman zaio "Sare soziosanitario hezitzailea" izeneko proiektuko aholkularitza taldeko partaidetzari, Pausoka, Apoyo Dravet eta ASEBIER elkarteekin lankidetzan arituz. Amaitzeko, proiektuaren ondorioak familiak eta profesionalekin partekatu genituen.

BIZITU PROGRAMA

2017az geroztik, programa hau Elkarrekin arloko ekintza nagusietako bat da.

Helburua: Bizitu ekimenak diziplina artistiko desberdinetako ikuskizunak publiko ororengana hurbiltzea du helburu, pertsona bakoitzaren aniztasun funtzionala errespetatuz, giro ludiko bat sortuz eta, batez ere, Juneren Hegoak-eko eta beste kolektibo batzuetako haur batzuek dituzten behar espezifikoak erantzuna emanez.

2024an egindako saioa:

- **Abendua: Zapotxin pailazoak** musika eta dantza ikuskizuna eskaini zuen koloreetan oinarrituta, antzokian zein plazan denok dugula lekua irakasteko helburuarekin. Publiko orori zuzenduta egon zen, aniztasun funtzionala duten pertsonen arreta berezia eskainiz, eta ikuskizunak zeinu hizkuntzako egokitzapena ere izan zuen.

Laguntzaileak: Onintze Agirre eta Errenteriako Udalak.



BOLUNTARIOTZA



JUNEREN HEGOAKEN MOTORRA

✓ BOLUNTARIOEKIN TOPAKETA
(URTE AMAIERAN)

✓ 3 HARRERA BERRI
EGIN DIRA

✓ ASEBETETZE-INKESTA ETA
JARRAIPENA EGIN DIRA

⊕ Inkestan %82ko partaidetza

⊕ Motibazio eta konpromiso handia: Boluntario gehienek beren lanarekiko asebetetzea adierazi dute, eta nabarmendu dute familia zailtasun garaian laguntzen dituen proiektu baten parte sentitzea oso garrantzitsua dela.


⊕ Koordinazio eta komunikazio handiagoa behar da: Erantzun askok adierazten dute jardueri, rolei eta txandei buruzko komunikazio argiagoa eta antolatuagoa izateak parte-hartzea eta inplikazioa hobetuko lituzkeela

⊕ Barne prestakuntza eta laguntza: Baloratua da prestakuntza espezifiko jasotzea (entzute aktiboa, emozioen kudeaketa, ospitaleko laguntza), eta boluntarioen arteko esperientziak partekatzeko topagune gehiago izatea.

⊕ Aitortza eta pertenezia: Boluntarioek azpimarratzen dute elkarte barruan baloratuta eta zainduta sentitzea, horrek parte-hartzea jarraitzeko motibatzen duela eta taldeen kohesioa indartzen duela.

⊕ Eskuragarritasuna eta parte-hartzea: Nahiz eta motibazioa handia izan, pertsona batzuek zailtasunak dituzte dedikazioa bizitza pertsonal eta lanarekin uztartzeko, eta horregatik parte-hartze malguagoak bilatzeko beharra adierazten da.

Boluntario kopurua



25 EGONKORRAK

5 ZUZENDARITZA
BATZORDEAN + ARLOEN
KOORDINAZIOA


KONTRATATUTAKO
PERTSONA 1

3 ARLOKO
KOORDINATZAILE

16 ARLOETAKO
LAGUNTZAILE

31 PUNTUALKI
ARITZEN DIRENAK

ADMINISTRAZIOA



%4,75

GURE FAMILIEN ZAINTZAN
INBERTSIO GEHIAGO
+(1.212,78 €) 2023arekin alderatuz


Balantze ekonomikoa

2024ko MEMORIA
EKONOMIKOAREN
informazio gehiago gure
web gunean




JUNEREN HEGOAK BERE HIRU HELBURU NAGUSIETAN INBERTITUTAKO ZENBATEKOAK




GASTUEN BANAKETA




DIRU-SARREREN BANAKETA



GURE MISIOAREN 3 HELBURUETAN INBERTITUTAKO PORTZENTAIA



PLANGINTZA ETA ANTOLAKETA



+
Ezagutu gure estatistiken datu eta grafiko gehiago

Estatistikak

2013-2024



MILA ESKER!

2024AN ZEHAR LAGUNTZA EMAN
DIGUTEN PERTSONAK, ENPRESAK ETA
ERAKUNDEAK

- 🔗 **Donostia Turismoa** | Eskerrik asko Natalia, Carmen, Isabel eta lagundu duten beste pertsona eta enpresei.
- **EXKAL** | Eskerrik asko Miriam eta horren atzean dauden pertsona guztiei.
- **LATZ** | DANOBAT GROUP
- **IPARTRONIC** | Eskerrik asko Roberto eta familiari.
- **DRUNKAT** | Eskerrik asko Josemari.
- **CAR** (Club Atlético Rentería)
- **Arzak Web Technologies** | arzak.org
- **Errenteriako Udala** (Kultura)
- **Gipuzkoako Foru Aldundia**
- **FEPAKO**
- **ApsidE** - Euskadiko Psikopedagogia Elkartea.
- **SVNP** - Euskal-Nafarroako Pediatria Elkartea.
- **Bizipoza Elkartea**

- **CAPGEMINI** | Eskerrik asko Aitor.
- Eskerrik asko Komunikabideei , gure lana, ekintzak eta proiektuak zabalduz laguntzen digutelako.
- **Juneren Hegoak Eguna:**

Activa Dance - Alcampo - Bixkor Txaranga - Buruarinak - Casa Aramendia - Club Fontanería Irurieta Beraun - David De La Calle - Fundación Real Sociedad - Gautxori Elkartea - Guk - Hugo On Egin Olartzun - Itzalpeko DJ - KBL - Lydia @manualidiando - Luismi Laboa - María Arandia - Pasqueler - Txistulariak - Uriña Harategia - Xabi Salillas

- **Ozzinema**
- **Zapotxin**
- **Eskuaire**
- **UPV/EHU (INKLUNI, Hezkuntza Zientziak, Hezkuntza Fakultatea, Filosofia eta Antropologia)**
- **Kroma**
- **Biba Zuek (EITB)**

- **NOSKI Liburu-denda** | Eskerrik asko Sihara
- 🔗 **AXULAR LIZEOA**
- **AVALON** | Mila esker Moni.

- 🔗 Gure esker ona adierazi nahi diegu **Teamers** guztiei, hilero 1 €-ko ekarpenarekin gure misioa aurrera eramaten laguntzen digutelako. Zuen eskuzabaltasuna eta konpromisoa funtsezkoak dira egiten dugun lanerako. Era berean, **Juneren Hegoak-en lagun** guztiei, euren diru-ekarpenekin familiei laguntza ematen jarraitzeko laguntzen diguteno, eskerrak eman nahi dizkiegu.



1 € / hilabeteko
laguntza nahi
diguzu?

